

salaberri

gerra, fedea eta kontzientzia

JUAN FÉLIX CANALES



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JUAN FÉLIX CANALES

salaberri

gerra, fedea eta kontzientzia

Nire lagun Carlos Baldari, historian lizentziadunari, eskerrak eman nahi nizkioke Euskal Herriko zenbait xehetasun historiko eta paisajistiko zuzentzen jakin izateagatik.

Hitzaurrea

“Gerra betean, lainoak estaltzen duen zubi baten inguruan, gizakiaren muga moralak agerian geratzen dira. Salaberrik, kapilau eta lekuko isilak, erretiratze baten kaosean biziraupenaren eta kontzientziaren arteko talka bizi du. Ez da heroien istorioa, ezta garaipenena ere: beldurrarena, erabakiena eta galeren pisuarena baizik. Hizkera zehatz eta irudi indartsuen bidez, eleberriak gerraren zarataren azpian geratzen den gizatasun hauskorra azaleratzen du.”



I. KAPITULUA

Mendaza: porrota eta lehen kolpeak

Mendazako gudua ez zen burrunba batekin hasi, bihozkada batekin baizik.

Isiltasun arraro bat zabaltzen zen muinoetan, oinetakoen azpiko orbelaren karraska bakarrik hautsita, lehen tiroek urrunean durundi egin zutenean. Salaberrik hainbat urtez gogoratuko zuen soinu hura: ez zen trumoi bat izan, baizik eta kolpe lehor bat, eduki txarrekoa, haranaren kontzientzian emandako danbatekoa bezalakoa.

Karlistak aurrera zihoazen bide bihurrituen eta aldapa malkartsuen artean. Zumalakarregi zaldi gainean zihoan, tente, lurreko mapa ikusezinak irakurtzen ikasi duen gizonaren lasaitasunarekin. Bere aginduak laburrak ziren, zehatzak, neurtuak.

— Ez zaitezte erakutsi etsaiak oso gertu izan arte.

Gizonek obeditu egin zuten. Beti obeditzen zuten.

Cordobako liberalak beren kopuruan fidatuta zihoazen. Tropa trinkoak ziren, ongi hornituak, diziplinatuak. Baina leku haiek ez zituzten ezagutzen, etxe ilun batean altzariak non dauden jakin gabe sartzen denaren modura.

Borroka izugarria izan zen.

Keak airea hartu zuen. Tiroak ugaritu egin ziren. Oihuak aginduekin nahasten hasi ziren. Zaurituak maldan behera zihoazen, salbaziora ala heriotzara erortzen ziren, zeinetara zihoazen jakin gabe.

Salaberrri ez zen lehen lerroan borrokatzen, baina ez zen alde batera geratzen. Zauritu batetik bestera zihoan korrika, eskuak lokatzez, odolez eta bolboraz zikinduta. Azkarregi ematen zituen absoluzioak. Hildakoei begi irekiak ixten zizkien azken aldiz. Hilzorian zeuden soldaduen buruari eusten zion.

Eta, otoitz baten eta bestearen artean, tiro egin zuen.

Ez zuen inoiz jakin noren aurka.

Fusilaren katuari sakatzean, bihotzean zerbait hautsi zitzaiola besterik ez zuen jakin.

Borroka ordu luzez luzatu zen. Baina zerbait okertzen hasi zen. Indar liberalek uste baino presio handiagoa egiten zuten. Posizio karlista batzuek amore ematen zuten.

Alboak ez ziren seguruak. Basoa, hainbestetan aliatua izan zena, bere defendatzaileen kontra bihurtzen ari zela zirudien.

Zumalakarregik inork baino lehenago ulertu zuen borroka hura ezin zela mantendu.

— Atzera — agindu zuen.

Hitza harri handi bat bezala erori zen.

Ez zen ihesaldi bat. Erretiratze ordenatua zen. Baina etsaiak ez ditu beti bi egoerak bereizten.

Sakabanaketa zabaltzen hasi zen, orbel lehorraren azpian sua bezala. Zaurituak erortzen ari ziren. Zaldiak katramilatzen. Ofizialak oihuka, ordurako apurtzen hasia zen aginduari eutsi nahian.

Salaberrik hiru gizon malapartatu gurdi baten gainean kargatzen lagundu zuen. Haietako batek, Onofre izeneko mutiko batek, etsipenez estutu zion besoa.

— Galdu dugu, aita?

Salaberrik segundo batez zalantza egin zuen.

— Gaur... ez dugu irabazi — erantzun zuen azkenean.

Mutikoak burua makurtu zuen, erantzun hura dena ulertzeko nahikoa balitz bezala, eta konortea galdu zuen.

Zuñigarako erretiratzea mantsoa, mingotsa eta isila izan zen. Inork ez zuen kantatzen. Inork ez zuen eztabaidatzen. Inork ez zuen ozenki otoitz egiten.

Oinez zihoazen.

Gauean, harana su baxuz eta begirada nekatuz bete zen. Soldaduen itzalak etxeetako hormen kontra luzatzen ziren, mamu gazte eta garaituak balira bezala. Mendaza ez zen erabateko hondamendia izan, baina bai gaizki itxitako zauria.

Zumalakarregi kanpamentuan zebilen, ezer esan gabe guztiari begira. Nekea ikusten zuen. Beldurra. Zalantza.

Bazekien Cordobak aurrera egingo zuela.

Eta bazekien hurrengo guduak ezin izango zuela zorte bera izan.

Orduan erabaki zuen etsaia Arkijasera erakartzea. Gau hartan, gizonak lur hotzean lo egiten saiatzen ziren bitartean, Salaberri luzaro egon zen esna. Bere txokotik

zaurituen aieneak entzuten zituen, begiraleen xuxurlak, izotzaren kirrinka putzuetan. Hasieran mutiko zaurituaz pentsatu zuen, gero egin zuen tiroaz eta azkenik erreka neskaren aurpegiarekin.

Eta lehen aldiz fusila hartu zuenetik, bere buruari galdetu zion ea bizirik irautea ere errua sentitzeko modua izan zitekeen.

Iluntasunaren tokiren batean, jenerala gerraren mapa berria marrazten ari zen.

Eta lainoa, poliki-poliki, jaisten hasi zen.

II. KAPITULUA

Kapilau eta fusila

Egunsenti hartan, Jose Salaberri sotana hezetasunak bustita janzten ari zen; fusila esku artean hartzen zuen, errespetu trakets batez—oraindik hiltzeko ideia erabat onartu ez duenarena—. Orduan, ustekabeko irudi batek zeharkatu zion gogoan, lekuz kanpoko tximista batek bezala: neska bat erreka baten ondoan, uraren gainera makurtuta, ile ilunak aurpegira erortzen zitzaizkiola, belo labur baten modura.

Neskak begiak altxatu zituen urratsak entzutean. Ez zuten hitzik esan. Baina haren begiradak iragarpen baten modura jo zuen Salaberrirengana.

Bazekien nor zen.

Maria Orbisokoa zen, Salaberrik aspalditik ezagutzen zuena.

Kausa karlistarekin bat egin aurretik, Orbisotik igarotzen zen sarri bere ibilaldietan, kapilau ibiltari gisa, eta Maria ikusteak beti sortzen zion barruan sentipen-nahasketa bitxi bat: lasaitasuna, bakea... eta maitasuna.

Zergatik itzultzen zen irudi hura orain, gerrak odola eskatzen zionean? Hala ere, egun hartatik aurrera, haren oroitzapenetan zerbait piztuta geratu zen, sugar ñimiño bat bezala.

Zentzugabea zen. Desegokia zen. Giza-sentipena zen.

Ega harana haren aurrean zegoen, laino apal eta trinko batez estalia. Lanbro hura ez zen edozein laino: presentzia bat zen. Arropen artean sartzen zen, biriketan, pentsamenduetan. Mendiak desitxuratzen zituen, bideak ezabatzen, urratsen hotsa irensten.

Salaberrik hiru gau zeramatzan benetako atsedetik hartu gabe. Mendazako porrotak gorpu ikusezin baten modura pisatzen zuen soldadu bakoitzaren gainetik. Gizonek gutxiago hitz egiten zuten. Zaldiak arnasestuka zebiltzan. Ofizialek segurtasun itxura egiten zuten, benetan sentitzen ez zutena.

Kapilaua zen. Edo hala izan zen.

Orain soldadua ere bazen.

Esku batez azken sakramentuak ematen ikasi zuen, eta besteaz fusila kargatzen. Zauritu baten alde otoitz egiten, eta minutu batzuk geroago sekula ezagutuko ez zuen gizon baten aurka apuntatzen.

Batzuetan bere buruari galdetzen zion ea Jainkoak bi ekintza horiek bereizten jarraitzen ote zuen.

Zuñigarako erretiratzeak itzalen prozesio mutu bihurtu zuen harana. Lokatzez zikindutako elurrak amore ematen zuen oinetakoen azpian. Etxe abandonatuen teilatuek neguaren zamapean kexaka ziruditen.

Aireak oraindik bolboraren usaina zuen, egur errearena, odol zaharrarena.

Kanpamentua isilik zegoen. Jantziak adabatzen zituzten, janari urriak banatzen, eskuak suaren inguruan berotzen. Keinu bakoitzean Mendazaren arrastoa nabaritzen zen. Gizonek ez zuten porrotaz hitz egin nahi, baina haien artean zebilen, presentzia ikusezin baten antzera.

Zumalakarregi gela estu batetik ari zen dena ikusten, kuartel nagusi gisa erabilitako toki batetik. Kriseilu batek itzal okerrak jaurtitzen zituen hormetan. Jenerala zutik zegoen, geldirik, ilunpearen parte balitz bezala.

Dei egin zionean, Salaberrik urdailean sentitu zuen pisua ez zen gosearena.

— Jeneral.

— Salaberri.

Ez zen tonu gogorrik izan, ezta bigunik ere. Zehaztasuna besterik ez.

— Arkijasko zubia ezagutzen duzu.

— Bai, nire jenerala.

— Gaur gauean han geratuko zara. Begiratu bideari. Ez dut ezustekorik nahi Lizarratik.

Salaberrik baiezkoa egin zuen, zalantzarik gabe.

— Ez dut hutsik egingo.

Esaldia bere ahotik atera zen, bere buruari egindako promesa bat balitz bezala, nagusiari baino gehiago.

Zumalakarregik luzaroan begiratu zion. Haren begietan ez zegoen mehatxurik, konfiantza soila baizik, ia arriskutsua.

— Hori espero dut.

Gaua haran gainera jaitxi zen, harlauza zabal eta busti baten antzera. Hotza ez zen bat-batean etorri: arropen artean sartu zen, hezurren artean, pentsamenduen artean. Ega ibaia xuxurlaka ari zen ilunpetan, hots motel eta monotono batez, betiko arnasketa baten gisara.

Salaberri zubiaren ondoan jarri zen. Egurrezko silueta heze bat besterik ez zen bi itzal-ertzen artean. Haratago, ezer ez. Ez Lizarra, ez mendiak, ezta bideak ere. Lainoak ezabatutako mundu bat.

Tarteka ibiltzen zen. Tarteka geldirik geratzen, belarria erne. Fusilak pisua egiten zion. Eskuek min ematen zioten. Denbora geldi eta astun bihurtu zen.

Orduan itzuli zen oroitzapena.

Errekako neska.

Ez zekien zergatik itzultzen zen hain bortitz. Agian isiltasunak irudi batzuk itzultzeko ahalmena zuelako. Neskaren eskuen mugimendu motela gogoratu zuen uraren gainean, islak azalean dar-dar egiten zuen modua, begirada altxatu zuen une zehatza.

Oroitzapen hark ez zuen kontsolatzen. Ahuldu egiten zuen.

Haizea indar handiagoz hasi zen jotzen. Lainoa loditu egin zen. Basoko itzalek aurrerantz zetoze ziru-dite, etsai zalantzati baten modura.

Salaberrik nekea sentitu zuen hanketatik betazaletaraino igotzen. Ez zen akidura fisikoa bakarrik: zerbait sakonagoa zen. Barne-abandonu bat, atsedena eskubidea eskatzen zuena. Aginduak errepikatu ziren bere buruan. Jeneralaren ahotsa. Behin eta berriz esana: gerran inork ez duela nekatzeko eskubiderik.

Eta, hala ere, amore eman zuen.

Ez berehala. Lehenik atzerapauso bat. Gero beste bat. Etsaia infernu zuri hura gurutzatzera ausartuko ez zelakoan. Gauak berak zuba zainduko zuelakoan.

Zuñigara itzuli zenean, haizeak erantzunik gabeko galdera bat xuxurlatu ziola iruditu zitzaion.

III. KAPITULUA

Zuñiga: elur eta isiltasun artean

Zuñiga elur zikin batez estalita esnatu zen, ehunka oinetako nekaturen aztarnapean.

Etxeak, txikiak eta okerrak, bata bestearen gainera makurtzen zirela ziruditen, ohituraz eusten dieten agureak balira bezala, indarrez baino gehiago. Teilatu-hegaletatik izotz-kandelak zintzilik zeuden, eta ate eta leihoetako zirrikituetatik ke mehe eta nahigabeko hariak ateratzen ziren. Kanpamentu karlista korta, larrain eta lastategi abandonatuen artean zegoen hedatuta. Leku hartan ez zegoen garaipenik. Gerraren bi astinaldiren artean geratutako su-eten deseroso bat baino ez.

Salaberrik fusila bizkarrean zuela zeharkatu zuen herrixka. Sotana, elur urtuaz blaitua, hanketan itsasten zitzaion, larru arrotz baten antzera. Bidean, soldaduek begirunez eta mesfidantzaz begiratzen zioten. Batzuentzat, kapilaua izaten jarraitzen zuen. Beste batzuentzat, oraindik frogatzeke zuen suaren azpian nolako gizona zen.

Goñi izeneko beterano bat horma baten kontra zegoen jarrita, fusila mugimendu geldo eta ia zeremonialez garbitzen. Salaberri pasatzen ikusi zuenean, alde batera tu egin zuen.

— Hotzak hiltzeko arropa polita —xuxurlatu zuen.

Salaberrik ez entzunarena egin zuen, baina esaldia ezpal bat bezala sartu zitzaion barrura.

Salaberriri eguerdi aldera egin zioten dei.

Karpan sartu zenean, bi ofizial zeuden, eta Zumalakarregi atzean, maparen aurrean. Jeneralak begiratu egin zion, luzaro.

— Zure postua utzi zenuen — esan zuen, ahots lauz.

Ez zen galdera.

— Bai, nire jenerala.

— Zergatik?

Salaberrik arnasa hartu zuen. Ez zuen aitzakiarik bilatu.

— Nekea. Lainoa. Arriskua gaindituta zegoela uste izan nuen.

Isiltasuna berriro.

— Uste izan zenuen — errepikatu zuen Zumalakarregik —. Gerran, usteak hildakoak sortzen ditu.

Salaberrik burua makurtu zuen.

— Mendazan, hala ere, bete zenuen agindua — jarraitu zuen jeneralak —. Erretagoardian geratu zinen. Zaurituak atera zenituen. Ez zenuen atzera egin agindua jaso arte.

Salaberrik ez zuen ezer esan.

— Horregatik — amaitu zuen Zumalakarregik —, ez dut zigor formalik ezarriko.

Hitz horiek ez ziren askapen bat izan.

— Baina gogoratu hau —gehitu zuen —: hurrengoan, ez da aurrekoa kontuan hartuko.

Salaberri agurtu eta atera zen.

Kanpoan, aireak gogor jo zion aurpegira.

Ez zen libre sentitu.

Lotuago baizik.

Arratsalde osoa zauritu bati begira eman zuen, Onofreri: Mendazan bala batek sorbalda zeharkatu zion mutikoari. Egoera larrian zegoen. Izerditan, eta inork ezagutzen ez zituen izenak errepikatzen.

Azkenean, Salaberri ohean etzan zenean, ezin izan zuen lorik hartu.

Gauerdi inguruan, haize-kolpe batek atea astindu zuen. Itzal ilun bat ikusi uste izan zuen gelan. Agian elurra zen. Agian ez. Pentsamenduak zalantzan geratu ziren: etsaia izan balitz, lotan harrapatuko zukeen.

Zubian bezala.

Lotsak kate baten antzera pisatu zuen.

Kanpoan, gaua hain zen hotza, ezen hats bakoitza lurrun bihurtzen baitzen.

Eta lainoa, haranaren hondoa, berriro ixten hasia zen.

IV. KAPITULUA

Egako zubia: pasabidea eta itxaropena

Egako zubiak ibaira botatako historiaurreko animalia baten itxura zuen.

Harri ilunek hezetasuna zerien, egunez ere bai, eta ura etengabeko zurrumurruz igarotzen zen azpitik, mende oso bat arrastaka eramaten ariko balitz bezala. Bi aldeetan, lepo natural batean estutua zegoen, eta lepo hark eztarri arriskutsu bihurtzen zuen pasabidea. Zubiak bidea menderatzen zuen.

Horregatik zaintzen zuen Zumalakarregik, burutik kendu ezinik.

Salaberrik patruila txiki batekin gurutzatu zuen egunsentian. Ez zen aurreko gauean bezain hotza, baina izotza urtzeak lurra lokatz itsaskor bihurtzen zuen, eta oinetakoei heltzen zitzaien bigarren azal baten modura. Zerua pitzadurarik gabeko berunezko xafla bat zen.

— Ez zait leku hau gustatzen — xuxurlatu zuen soldaduetako batek.

— Gustuko lekuak ez dira gerran agertzen —erantzun zion beste batek.

Salaberrik ez zuen parte hartu. Begira zegoen. Entzuten. Itzal bakoitza aztertzen zuen, ezin disimulatuzko kezka. Guardia uztearen oroitzapena pizten zion itzal bakoitzak. Orain ez zitzaion urrats faltsurik barkatuko.

Ibaiertza, sastrakak eta alboko maldak arakatu zituzten. Dena bare zirudien. Bareegia.

Eguerdirako albisteak iritsi ziren Lizarratik: Cordobaren tropak aurrera zihoazen. Ez presaka, baina segurtasun metodiko batez. Urrats bakoitza iltze bat gehiago zen haraneko hilkutxa ikusezinean.

Salaberrik gutxi jan zuen. Ogiak zerrauts zaporea zuen. Salda eztarrian behera jaisten zitzaion, gorputza berotu gabe. Ardurak gosea lapurtzen zion.

Orduan entzun zuen berriro Gofiren ahotsa.

— Gaur ez omen duzu lo hartuko, kapilau jauna.

Salaberrik begiratu egin zion. Beteranoaren irribarrea ozta-ozta marrazten zen, isekarik gabeko keinu oker batean, baina barkamenik ere ez zegoen han.

— Ez dut horretarako asmorik.

— Hori diote denek.

Goñi urrundu egin zen, erantzunik espero gabe. Bizkarrean zeramanak mespretxua baino zerbait gehiago adierazten zuen: aspaldiko desengainua.

Arratsalde hartan bertan, ofizialak bildu zituen Zumalakarregik. Haranaren mapa mahai inprobisatu baten gainean zabaldua zegoen: munizio-kaxen gainean jarritako ohol batean.

— Cordoba Los Arcosetik doa aurrera — azaldu zuen, daga baten puntaz seinalatuz —. Lana izeneko haranatik etorriko da Oráa. Inguratu nahi gaituzte.

Marmar batek zeharkatu zuen gela.

— Borroka egingo dugu hemen? — galdetu zuen batek.

Zumalakarregik burua poliki astindu zuen.

— Hemen entretenu baino ez ditugu egingo. Gelditzen badira, denbora irabaziko dugu. Aurrera egiten badute, atzera egingo dugu Arkijasera. Lurrak erabakiko du gure orde.

— Eta harana ixten badute?

— Orduan beti bezala borrokatuko gara: gutxien espero gaituztenean, eta min gehien egin dezakegun lekuetan.

Begiradak isilik gurutzatu ziren. Inork ez zuen galdetu zer gertatuko zen etsaiak zubira goizegi iristen bazen.

Bilera hitzaldirik gabe amaitu zen.

Aginduekin bakarrik.

Gauean itzuli zen.

Izarrik gabeko gaua zen, ilargirik eta ertzik gabea. Lainoa pixkanaka jaisten hasi zen: lehenik, gaza mehe baten modura; gero, horma baten gisara. Salaberri bere postuan zegoen, behatzak fusilaren inguruan gogortuta.

Oraingoan ez zen mugituko.

Minutu bakoitzean berun-tanta bat erortzen zitzaion bularrean. Ibaiak bere soinu ilunarekin jarraitzen zuen. Haizeak sastrakak astintzen zituen, burrunba engainagarri batez.

Gauerdian, ahotsak entzun uste izan zituen.

Belarria zorroztu zuen.

Ezer ez.

Ura bakarrik.

Baina gau hartan ez zen isiltasunaz fidatzen.

Egunsentia baino lehen, mezulari bat lokatzez beterik iritsi zen kanpamendura.

— Liberalak bi legoatara daude — iragarri zuen —. Aurrera doaz, gelditu gabe.

Zumalakarregik baietz esan zuen, horren zain egon balitz bezala.

— Gizonak iratzar ditzatela.

Aginduak dar-dar egin zuen. Soldaduak zutitu egin ziren mugimendu geldo eta astunekin. Inork ez zuen oihurik egiten. Inork ez zuen eztabaidatzen. Nekeak fisikoa izateari utzi zion: morala zen.

Salaberrik zubian azken unera arte egoteko agindua jaso zuen.

— Atzera egin baino lehen iristen badira — esan zion ofizialetako batek —, abisatu egiten diguzue.

— Abisatuko dut — erantzun zuen.

Oraingoan, dardararik gabe.

Lehen tiroak zerua zuritzen hasi orduko jo zuen.

Ez zen jakin nondik etorri zen.

Gerra itzuli zela besterik ez zen jakin.

Oihartzun gor bat ibili zen haranean. Gero beste bat. Gero, haize-bolada irregular batek urratu zuen airea, norbaitek ganibet ikusezinez lainoa urratuko balu bezala.

Salaberrik itzalak ikusi zituen ibaiaren bestaldean mugitzen.

Gehiegi.

Asko.

— Etsaia bistan! — oihu egin zuen —. Zubira doaz!

Hitzak bolbora baino azkarrago joan ziren.

Bailara osoa bat-batean esnatu zen.

Eta lainoa, bi armaden konplize mutua, kolpetik jaitsi zen azken oihala bezala.

V. KAPITULUA

Egunsenti zurbil

Egunsentia iritsi zen, baina ez zuen argirik ekarri.

Argitasun zurbil bat besterik ez zen, gaixorik, lainoa zeharkatzeko gauza ez zena. Ega ibaiaren harana ingururik gabeko argitasun batean harrapatuta geratu zen, mundua egin gabe geratu izan balitz bezala. Ez zegoen distantziarik. Ez zerumugarik. Dena pauso gutxitara gertatzen zen... edo ez zen batere gertatzen.

Salaberri zubiaren ondoan jarraitzen zuen.

Arrisku-oharra emana zuen. Agindua betea zegoen.

Orain, zain zegoen.

Lehen kanoikadak urrunean jo zuten, airearen sabel hezeak moteldua. Gero beste bat. Eta beste bat. Soinuak ihesi zetoze la ziruditen, lanbroak erabat desitxuratu aurretik.

Liberalak aurrera zihoazen.

Oraindik ezin ziren argi ikusi, baina sentitu egiten ziren: zurrumurru larria, lodia, oinetakoz, burdineriaz eta arnasketaz osatua. Lurra dardarka ari zen zarata sor batez, ia basatia.

— Badatoz... —xuxurlatu zuen soldaduetako batek.

Salaberrik ez zuen erantzun.

Fusila esku artean sutan zuen. Ez hotzagatik, tentsioagatik baizik.

Kanpamentutik aginduak oihuka heltzen ziren. Itzalak korrika. Beste batzuk geldirik. Armada karlista gorputz lokartu bat zen, norbaitek bat-batean astindu izan balu bezala.

Zumalakarregi lainoaren erdian agertu zen, zaldi gainean. Une hartan ez zirudien jeneral bat, baizik eta liburu bibliko batetik erauzitako irudi bat: geldi, ilun, armadaren atzealdean iltzatua.

— Ez tiro egin etsaia ikusi arte — agindu zuen —. Pasabidea libre dagoela pentsa dezatela.

Gizonek baietz egin zuten.

Eta zain geratu ziren.

Lehen etsaia bat-batean azaldu zen.

Silueta lauso bat, noraezean, fusila gorantz zuela, korridore ilun bat arakatzen ari denaren modura. Beste pauso bat eman zuen. Gero beste bat.

— Orain — esan zuen ahots batek.

Tiroak atzerantz bota zuen. Ez zuen zer gertatzen ari zen ulertzeko astirik izan. Gorputza uretara erori zen soinu hutsal eta labur batez. Ibaiak, zeremoniarik gabe, eraman egin zuen.

Tiro horren ondoren infernua etorri zen.

Lainoa sutautsez bete zen. Aire berunezko klaska bihurtu zen. Tiroak aurpegirik gabe gurutzatzen ziren, jaberik gabe, justiziarik gabe. Inork ez zekien nori egiten zion tiro. Inork ezin zuen bost urrats baino gehiagora ikusi.

Gerra itsu bihurtu zen.

Salaberrik tiro egin zuen.

Berriro.

Eta hirugarren aldiz.

Ez zuen inor erortzen ikusi. Itzalak mugitzen besterik ez.

Soldadu karlista bat agertu zitzaion bat-batean aurrean, ahoa zabalik, soinurik gabe. Lepotik odola zerion, iturri beltz baten antzera. Belauniko erori zen, une batez Salaberriri begiratu zion ikusi gabe, eta haren oinetara amildu zen.

Salaberrik pauso bat atzera egin zuen.

Estropezu egin zuen.

Lokatzak oinetakoa irentsi zion.

Beldurra eztarriraino igo zitzaion, goragale nazkagarri baten gisara.

Zumalakarregik berehala ulertu zuen hura ez zela aurrez aurreko borroka bat.

Saio bat zen.

Liberalek zuhurtziaz egiten zuten aurrera, poliki, erresistentzia neurtuz. Jeneralak argi ikusi zuen: oraindik ez zuten indar osoz erasoko. Eremua ikasi nahi zuten, harana irekian zauri bat apurka zabaltzen duenaren modura.

— Ez dezatela zubia gurutzatu! — agindu zuen —. Pausorik ez!

Karlistek eutsi egin zioten.

Irabazitako metro bakoitza gorputz batez ordaintzen zen.

Aurrerabide bakoitza, oihu batez.

Lainoak borrokaren benetako neurria ezkututzen zuen, eta hori zen izugarriena: ez zegoen jakiterik irabazten edo galtzen ari ziren. Hiltzen ari zirela besterik ez zen jakina.

Salaberri zauritu batengana joan zen korrika. Ume-ahotsez amari deitzen zion. Burua heldu zion. Ia gogoratzen ez zuen otoitz bat xuxurlatu zion. Mutikoak arnasa hartzeari utzi zion hasperen labur batez.

Une horretan, bala batek harrizko parapettoa jo zuen. Ezpalek hortz hautsiak balira bezala egin zuten hegan. Haietako batek masaila ireki zion.

Ez zuen sentitu.

Odola kokotsetik behera jaisten hasi zitzaion, konturatu gabe.

Goiz erdian, presioa handitu egin zen.

Liberalek ibaiaren bi aldeetatik bultzatzen zuten. Itzalak jada ez ziren irudi isolatuak: taldeak ziren, ilarak, tropa itxuragabeak lainoaren barruan.

— Inguratzen gaituzte! — oihu egin zuen norbaitek.

Oraindik ez zen egia.

Baina laster izango zen.

Mezulari bat korrika iritsi zen atzegoardiatik.

— Nire jenerala! Mugimenduak daude mendebaldean! Tropak albora sartzen!

Zumalakarregik hortzak estutu zituen.

— Oráa...

Tranpa uste baino azkarrago ixten ari zen.

Haranari begiratu zion azken aldiz, benetan ikusi ahal izango balu bezala. Gero, lasai hitz egin zuen, eta inguruko guztiek hotzikara sentitu zuten.

— Prestatu zaitezte atzera egiteko.

Hitz gaizto hori.

Oraindik ez zuen ozen esan.

Salaberrik handik gutxira jaso zuen agindua.

— Prestatu zure gizonak — esan zion ofizialorde batek —. Ez dugu hemen luzaro utsiko.

Kapilau armatuak baiezkoa egin zuen.

Zubiaren beste aldera begiratu zuen azken aldiz.

Laino artean estandarte liberal bat ikusi uste izan zuen, airean irekitako zauri baten antzera kulunkatzen.

Orduan ulertu zuen borroka ez zela zubiagatik bakarrik.

Irteeragatik zen.

Eta barruan jakin zuen, halaber, gainean zeraman erruaren benetako prezioa ordaintzen hasia zela.

VI. KAPITULUA

Atzera egitearen zama

Agindua ez zen burrunbaka iritsi.

Berri txarrak iristen diren bezala iritsi zen: ahapeka, ia ahalkez, gerrak ere hitz batzuk esateko lotsa balu bezala.

— Nire jeneralak erretiratzeko agindu du.

Mezulariak lokatza belaunetaraino eta odol lehorra zeramatzan bekainetan. Ez zion inori begietara begiratu esaldia esan zuenean.

Segundo batez, inork ez zuen erreakzionatu.

Tiroek aurrera jarraitzen zuten.

Lainoak mugitzen jarraitzen zuen.

Ibaiak gorpuak zeramatzan oraindik.

— Erretiratzea...? — errepikatu zuen norbaitek, hitza errealitatearekin bat ez baletor bezala.

Orduan, agindua ahoz aho hasi zen, itzalez itzal, gizonez gizon.

Erretiratzea.

Ez ihes egitea.

Ez porrota.

Baina garaipena ere ez.

Salaberrik barruan zerbait lasaitzen zitzaion sentitu zuen. Ez zen arindua. Bat-bateko hutsune moduko bat zen, oina azpian lurra palmo bat beherago jaitsi izan balitz bezala.

— Atzera, atzera! — oihukatu zuen sarjentu batek —. Erretiratzea babestu!

Gizonak mugitzen hasi ziren, desordena kontrolatu batean. Oraindik ez zuten korrika egiten. Baina diziplina hauskor bihurtzen ari zen. Batzuek atzera egiten zuten tiroka jarraituz. Beste batzuek sorbaldaren gainetik begiratzuz egiten zuten, ia inoiz ikusten ez zuten etsai batek izututa.

Lainoak erretiratzea labirinto bizi bihurtzen zuen.

Salaberrik izterrean zaurituta zegoen soldadu bati altxatzen lagundu zion. Gizonak ia bere pisu guztia haren gain jarri zuen.

— Ez nazazu utzi, aita...

— Ez zaitut utziko.

Hiru urrats eman zituzten.

Laugarrena.

Bosgarrenean, bala batek zauritua bizkarrean jo zuen. Gorputza haren gainera erori zen. Kolpeak ia lurrera bota zuen. Salaberrik oihu egin zuen ohartu gabe. Eutsi ahal izan zionean, gizona hilda zegoen jada.

Segundo batez gelditu zen, beso artean.

Gero askatu egin behar izan zuen. Erretiratzeak ez zuen dolurako astirik ematen.

Zumalakarregik erretiratzea zuzentzen zuen, lainoaren artean ozta-ozta antzematen zen muino txiki batetik. Bere zaldia izerdiz eta besteren odolez estalia zegoen. Aginduak laburrak ziren, lehorrak, apaindurarik gabeak.

— Lehen lerroa, basora.

— Artilleria, atzera.

— Ezker hegala estali.

Agindu bakoitza losa bat gehiago zen armadaren bularretik kentzen zena... baina hutsuneak uzten zituen, etsaiak presaka betetzen zituenak hildakoekin.

Itzal liberalak aurrera zihoazen jada, lehen bezain zuhur ibili gabe. Erretiratzea usaindu zuten, txakurrek haragia usaintzen duten bezala.

Eta estutzen zuten.

Kaosa ez zen kolpe bakarrean lehertu.

Isil-isilik sartu zen.

Garaiz baino lehen korrika hasten den soldadu bat.

Agindurik gabe atzera egiten duen sekzio bat.

Bere gizonak aurkitzen ez dituen ofizial bat.

Eta gero, bat-batean, dena aldi berean.

Oihu zorrotz batek lainoa zeharkatu zuen:

— Atzetik mozten gaituzte!

Ez zen jakin egia zen ala ez.

Baina nahikoa izan zen askok sinesteko.

Izua ez da frogaz elikatzen, arrakala batez baizik.

Gizonak korrika hasi ziren.

Lokatzak irentsi egiten zituen.

Lainoak elkarri ezkututzen zizkien.

Salaberri aurrera zihoan estropezu eginez, giza-mareak bultzatuta. Zubia bistatik galdu zuen. Ibaia galdu zuen. Erreferentzia oro galdu zuen.

Mundua bi gauzara mugatu zen:

Ihes egitea.

Ez erortzea.

Gorputz batek aurrez aurre jo zuen. Goñi zen.

— Alde egin, kapilaua! — orro egin zion —. Atzera begiratzen dutenek ez dute hemen bizirik irauten!

Salaberrik nekez erantzun ahal izan zuen. Beste bultzada batek bereizi zituen. Beteranoa lainoan desagertu zen, inoiz existitu ez balitz bezala.

Lurra traidore bihurtu zen.

Maldak ezkutuan.

Lubaki ikusezinak.

Tranpa bihurtutako sustraiak.

Gizon talde bat malda batetik behera erori zen biraka. Oihuak bat-batean itzali ziren, lurpeko ate bat kolpez itxi izan balute bezala.

— Kontuz! Amildegia!

Abisua berandu iritsi zitzaien batzuei.

Erretiratzea isilpeko lepo-mozketa bihurtzen ari zen.

Salaberri korrika zihoan, nora ez zekiela.

Aireak ez zion jada garbi sartzen biriketara. Arnasa bakoitzak lokatza, bolbora eta odola zekartzan.

Estropezu egin zuen.

Belauniko erori zen.

Soldadu batek gaineratik pasatu zitzaion, ikusi gabe.

Beste batek eskua zapaldu zion.

Mina hain izan zen erreala, segundo batez bere gorputzera itzularazi zuena. Nekez altxatu zen, sotana urratuta eta fusila lokatzez beteta.

Orduan ahotsa entzun zuen.

— Handik ez!

Zumalakarregiren ahotsa ezagutu zuen, urrats gutxira, ezker hegala seinalatzen zuen itzal ilun bat besterik ez bazen ere.

— Errekatik segi! Ez amildegira!

Batzuek entzun zuten.

Beste batzuek ez.

Eta beste horiek betiko desagertu ziren.

Azkenean basoan babes erlatibo batera iritsi zirenean, erretiratzea jada ez zen erretiratzea.

Biziraupena zen.

Gizonak enborren kontra amiltzen ziren, begiak desorbitatuta, hatsanka, jazarria izan den animalia baten gisan. Batzuk negarrez hasi ziren ohartu gabe. Beste batzuk barreka. Hainbatek ez zuen ezer esaten.

Salaberri zuhaitz baten kontra bizkarrez erori zen.

Eta borroka hasi zenetik lehen aldiz, gorputz osoan zehar dardara sentitu zuen.

Ez hotzagatik.

Bizirik jarraitzeagatik.

Orduan Goñirengan pentsatu zuen.

Eta ez zuen inon ikusi.

VII. KAPITULUA

Amildegiko segurtasuna

Sakana ez zen ikusten. Sumatzen zen. Hutsune bat zen lainoan, aireko hustasun bat, isiltasun arraro bat.

Lurra, ordura arte hezea baina tinkoa, faltsuki bigun bihurtzen zen bat-batean. Maldan behera, lokatzetan idatzitako gezur bat bezala.

—Geldi! —oihu egin zuen norbaitek—. Ez egin aurrera!

Baina garrasia beste oihu batzuen artean galdu zen.

Detonazioen artean.

Beldurraren taupada mutuen artean.

Salaberri giza masak bultzatuta iritsi zen amildegia ertzerara. Soldadu bat ikusi zuen irrist egiten, sustrai bati eusten saiatzen, eta oihuka hasteko astirik gabe desagertzen. Segundo bat geroago, beste bat. Gero beste bi.

Lainoak oihartzunik gabe irensten zituen.

—Atzera! Amildegi bat da! —oihu egin zuen indar osoz.

Batzuek entzun zuten.

Gehienek ez.

Gizonak erortzen ari ziren, lurra oinen azpian irekitzen ari balitz bezala.

Erretagoardiatik tiroak heldu ziren. Liberalek ez zuten zalantzarik. Etsai baten kontra borrokatzen zuten, bere harrapakina hesituta ikusten duten ehiztarien segurtasunarekin. Beldurrak aurrerantz bultzatzen zuen.

Heriotzak behean itxaroten zuen.

Zumalakarregi bat-batean agertu zen ezkerretara, bi haritz biluziren artean. Zaldia amorratu egin zen amildegia ikustean.

—Ezkerretara! —orro egin zuen—. Ezkerretara, arraioa! Jarraitu errekarri!

Haren ahotsak lainoa zeharkatu zuen, zigorraren antzera.

Soldadu batzuek erreakzionatu egin zuten. Biratu ziren. Elkar jo zuten. Lokatzetan ibili ziren, amildegira erori gabe, mirakuluz. Beste batzuek aurrera jarraitu zuten zuzen... eta betiko desagertu ziren.

Salaberrik soldadu bat ikusi zuen erortzen: Onofre, Mendazan lagundu izan ziona. Ez zekien erabat sendatua ote zegoen.

Orduan ikusi zuen.

Goñi lainotik atera zen, zezen zauritu bat bezala. Ebaki sakon bat zuen bekokian. Odola bekainean beheara zerion, eta ezkerreko begian sartzen zitzaion. Bultzaka zihoan, haserre, noraezean, bi soldaduk lagunduta, ozta-ozta eusten ziotelarik.

—Saldu egin gaituzte! —orro egiten zuen—. Hau sagutegi bat da!

—Goñi! —oihu egin zuen Salaberrik—. Hemendik ez!

Beteranoak ezagutu egin zuen.

Mespretxuzko txinparta batek gurutzatu zion aurpegia.

—Alde hemendik, kapilau jauna. Nahikoa egin duzu zubiarenarekin.

Hitz haiek tiro garbi bat bezala sartu zitzaizkion bularrean.

Salaberrik pauso bat eman zuen harengana.

—Hortik jarraitzen baduzu, hil egingo zara.

—Denok berdin hilko gara —tu egin zuen beteranoak—. Baina ni ez naiz otoitzen atzean ezkutatuko.

Une horretan, atzealdetik etorritako bultzada bortitz batek hautsi zuen oreka prekariora. Beteranoarekin zihoan soldaduetako batek hanka galdu zuen. Bestea aldean eraman zuen. Biak jirabiraka erori ziren hutsera, garrasia bat-batean itzaliz.

Goñi bertan behera geratu zen segundo batez. Lokatza oinetakoen azpian. Amildegia bizkarrean.

Salaberrik argi eta garbi ikusi zuen dena.

—Eutsi gogor!

Beteranoa jirutzen saiatu zen.

Baina orpoen azpiko lurra jausten hasi zen.

Eta Goñi erori zen. Ez zen erorketa azkarra izan.

Erorketa luzea izan zen.

Erorketa astuna.

